

## XURI GORRIAK EUSKALTZALEEN ARTEAN ALBERT GOYENETXEREN GARAIAN

2000-VII-21

*Manex Goienetxe*

Noiz agertu ote zen XIX. mende horretan “xuri-gorri” hitzaren edo adierazpenaren erabilpena? Egia erran, xingola urdina izan zen luzaz errepublikanoen ikurra. 1789ko Iraultza garaian monarkiaren ikurra zen zuria, urdina aldiz errejimen politiko berriarena. Baina, XIX. mendeko azken hamarkadetan, bereziki 1870eko altxamenduaren ondotik gorri bihurtu zen lazo urdina herri-irudimenetan, errepublikazaleen ikurra zen orain. Euskarazko literaturan 1880-1890eko hamarkadan agertu zen “xuri-gorri” hitza, bai *Le Réveil basque* agerkarian (hau gorriena), bai *Eskualduna* astekarian (hau zuriena). Denek ezaiztzen dugun Joseba Intxaustiren testo bilduman, *Zezenak Errepublikan* (1), ongi ageri da Iparraldeko eritzi publikoa murgildu zela XIX. mendeko azken hamarkadetan bi irudi horien inguruan : “xuri-gorriak”. Lehenak biltzen zituen erregetiarrak (legitimistak ala orleanistak), bonapartistak (Napoleon I-aren, gero III.aren aldekoak), baita ere erregezale muturrekoak, “zuri pur purak”. Gorriak aldiz ziren Errepublikaren aldekoak, baina, orduan ez zuen oraindik sozialista erran nahi. Ideia sozialistak hedatzen hasiko direlarik, “gorri gorriak” dira izendatuak izanen sozialistak. Liberalak zirela gorriak erran dezakegu.

### I. Gataskaren kokapena frantziako historiaren ingurugiroan

Frantziako Estatuan gertatu errejimen politikoen bilakaeran kokatu behar da, beraz, zuri-gorrien arteko gataska. Lehen Errepublika emana izan zen 1792an eta iraun zuen 1799 arte. Baina juridikoki Errepublika ez zuen baztertu Napoleon Bonapartek 1799an. Ofizialki 1804ean zen kendua izan lehen Errepublika, enperadore eman zuelarik bere burua Napoleonek.

Bigarren Errepublikak ez zuen luzaz iraun, 1848tik 1852a arte bakarrik. Garai horretan Augustin Chaho izan zen “gorriei” hatsa eman ziena. Euskara-frantsesezko lehen agerkaria sortuz: *Ariel ou le Républicain de Vasconie* (2).

---

(1) Joseba Intxausti, *Zezenak Errepublikan*.

(2) Baionako Euskal Erakustokiko dokumentazio zentroan.

Berak idatzi zuen lehen editoriala: *Zer da Errepublika*. Lehen belaunaldi honetako errepublikazaleen ideiak aurki ditzakegu ere Auch hirian argitaratua izan zen agerkari batean, *Revue d'Aquitaine* (1857-1869), biltzen zituenak ber denboran karlistak eta Chahoren aldekoak.

Bigarren Inperioaren ondotik berriz finkatua izan zen Errepublika 1870eko irailaren 4ean. Baina Errepublikari dagokion benetako konstituzioa bozkatua izan zen bakarrik 1875ean. Hau deitzen da "Walon emendakina", boz batez zen doi doi pasatu, erran nahi baita erregimen berriaren oinarriak ez zirela oraindik sakon barneratuak herritarren baitan. Karia hortara euskaraz argitaratu zuten errepublikazaleek liburuxka bat, *Lehen eta orai Errepublikaren ongiak* (3) izenburu pean. Sarreran ongi adierazia zen Frantziako Errepublika hori aspalditik jadanik beren historian eta gizartean bizi ukan zutela euskaldunek:

«Euskaldunek maite dugu bertzek bezenbatean, edo gehiagoki, libertatea, hala nola bertzen menetik gorago izaitea. Anaitasuneko sendimendu hori ohortzen dugu berthute gaindizkoena bezala ; eta nihoiz, Eskual Herrian, gizona ez da izan Aitor baten gatibo.

Sekulaz gero Eskualdunak izan dire libro, anaitasuna eta igualtsu. "Libertatea, igualtasuna, anaitasuna", Errepublikak beretu dituen hizkontza eder hok izan dire, bethi eta bethi, Eskualdunen sendimenduak.

Gure bihotzaren zola-zolatik gare, beraz, egiazko eta zinezko errepublika-noak. Zertako ba, Frantziako pharte gehienetan Errepublika behar bezala onhetsia den denboran, gutarik zenbeitek traba egiten dakote, orai duela hogoita-bortz urtheko gerla dohakabe hartarik lekhora, Frantziak hautatu eta, geroztik hunat, hain gora althatu duen Gobernioari?»

Errepublikaren ideia hori euskaldunek ere omen hedatu behar zuten munduan zehar:

«Errepublikako bandera, gure soldadoek agererazi duten toki guzietan, finkatua izan da behin-bethikotz: Tunisian, hala nola Tonkin-en, Dahomey-ko phartean eta, azken denbora hotan, Madagascar-eko eremu handietan. Garaitze horier eskerrak, gure gaindizko gauza, esku-lan eta gaineratiko soberakinek izan dezazkete yuan-bide errechak, nihon ez nehoren traba beldurik gabe, gorago aiphatu eremu bazter gabeko hotan (Ibidem).»

Liburuxka honek argi adierazten du, orohar, Ipar Euskal Herriaren bila-kaera politikoa Parisekoaren antzekoa edo araberakoa izan zela, mimetismoak jorik. Euskal Herrian ere Errepublika apurka apurka sartu zen, zenbait urteren atzerapena izanik ere, jakinez aro industrialeko hiri haundirik ez zegoela orduan Ipar Euskal Herrian. Gutu gora behera 1871 eta 1881 tartean da finkatu Errepublika Euskal Herriko gizartean. 1881eko hauteskundeetan, errepublika-noak nagusitu ziren lehen aldiko, Baionako bozka-eremuan Théodore Plantié

(3) Ale bat dago Baionako Euskal Erakustokiko zentroan.

buru zela, Maulekoan aldiz Théodore Pradet-Balade. Lau urteren buruan, 1885ean, zuriak berriz nagusitu ziren.

Euskalzaleen artean, zuri-gorriak hika mikan hasi ziren 1874eko Euskal Lore Jokoetan, Saran iragan zirenak (4). Lehen bi sariztatuak zuriak izan ziren. Lehen irabazlearen nortasuna ez da ezagutzen, *Bizkaitar karlista bat* izenpean aurkeztu zuen olerkia, "*Jaungoikoa eta Erriya*" errepublikanoek ez zuten onartu. Bigarren saria aldiz irabazi zuen Gratien Adema (Zaldubi) apezak *Betirisantz* olerkiarekin, Iraultzaz eta Errepublikaz trufatzen zela:

*Betirisantzen politika bera lacho, bertzeak tinka. Gero "Bibe la liberté" errepika,*

*Jendea dabilka*

*Tiraka purtzika*

*Legar eta lege berri ukhaldika*

*Nausi nahiz oro gaindizka,*

*Bainan oro ezin aldizka.*

*Diote hori dela Errepublika.*

*Diote hori dela Errepublika.*

Gataska berriz piztu zen 1876an (5). Lehen saria eraman zuen Gratien Ademak, "*Biba Errepublika*" olerkiarekin, Errepublikaz berriz ere trufatuz, hitz bortitzak ere botatuz:

*Alferromes, kochkarin, krakesku, Triparno,*

*Hauk beren jitez dire errepublikano*

*Ai, ai! mutilla, errepublikano*

*(...)*

*Framazon, arnegatu, zirtzil eta judu,*

*Guzien buruzagi horiek ditugu.*

*Ai, ai! mutilla, horiek ditugu.*

*(...)*

*Ohoinak ere berdin, biderat atheraz,*

*Lege egile dituk, indar nausi beraz.*

*Ai, ai! mutilla, indar nausi beraz.*

*(...)*

*Nihork bererik deus ez, Gobernuak oro:*

*Horra zer lege laster duten eman gogo.*

*Ai, ai! mutilla, duten eman gogo.*

*Nun dire Eskualdunen lehengo Fuegoak?*

*Arbasoen parean gu zer gathiboak!*

*Ai, ai! mutilla, gu zer gathiboak!*

Kexu eta hasarre gelditu ziren gorriak, bereziki Julien Vinson eta Martin Guilbeau, Donibane Lohizuneko mediku gaztea.

(4) Iturriak: *R.I.E.V.*, 1909, 227-228 or.; *L'Avenir des Pyrénées et des Landes*, 1874/09/09.

(5) Iturriak: *R.I.E.V.*, 1908, 121-124 or.; *Euskal Erria*, 1894, 465-467. or.

Bere gorenaren jo zuen gataskak 1889ko hauteskundetako kanpañan, urte horretan baitzen ere ospatu Frantziako Iraultzaren lehen mendeurrena. Giroaren lekuko ditugu *Eskualduna* agerkarian azaldu ziren hamabi artikulua: “*Erreboluzionaren mende bethetzea*” (6). Zurien bozeramalea zen Louis Etcheverry, Baigorri-Garaziko abokatu eta lur jabea. Bere familia merkataritzan aberastu zen. Berak ikasketak Parisen burutu zituen eta karia hortara Le Play ezagutu zuen. Horrela bere egin zituen “Economie sociale”ko ideia berriak, Baionan eta Pauen sortzen zituela ere araberako talde sozialak, “cercles sociaux” deitzen zirenak. Mugimendu horren helburua zen Errepublikaren eraginari aurre egitea. 1887an sortu zen *Eskualduna* astekariaren buru jarri zen. Bestaldetik, gorrien buru azaldu zen Henry Berdoly, Mauleko prefeta-orde ohia eta Donapaleuko kontseilari jenerala. Jatorriz Bordaleko industrialari aberats baten semea zen, lurjabe haundia, Uharte-Amikuzeko gatzeluan bizi zena. 1886an *Le Réveil-Eskual Herria*, bi hizkuntzetako astekariaren sortzaile izan zen.

Erran gabe doa 1889ko Euskal Herriko barnekaldean bero beroa joan zela hauteskunde kanpaña. Berdolyk bere alde zuen administraziooko tresneria osoa. Etcheverryk aldiz Elizako apezak, baina ez hainbeste Baionako apezpiku zen Mgr Jauffret. Hau Baionan gobernua izendatu zuen Euskal Herria Errepublikaren alde itzularazteko. Bazuen zer egiteko, zeren izugarriko laguntza ekarri baitzuen Elizako jendeak Louis Etcheverryren alde. Hala nola Lourdesera erromeria edo beila bat egin zuten irailaren 2an 3000 euskal beilari bilduz.

Urte horietarik goiti bi taldetan banatu ziren Euskal Lore Jokoak, orduarte kolore guzietako euskaltzaleak biltzen zituztenak. Elkarre berri bat muntaturik, “Association basque des Jeux Floraux”, gorrien lehen azalpena izan zen Uztaritzen 1893an. Gonbidatu ofizialetan aurkitzen ditugu Jean Salaberri, Mauleko notarioa, Arturio Campion nafartarra, ekitaldien buru zela Harriague-Morroxo Hazparneko diputatu gorria. Urte horretan berriz hauteskundeak izan ziren eta irabazle ateratu ziren, Maulen, Berdoly, Baionan Harriague-Morroxo.

1894ean zuriak Saran bildu ziren Antoine d’Abbadie zutela buru. Landu behar zen olerkiaren gaia berak eman zuen, Maialen Larralde. *Ene primak emanak izanen dire Donibane Garazin, buruilako illabetian. Orok suyeta bera izanen dute; au da*: Madelen Larralde Sarako martiraren istorioa. *Chuchen den bezala prima izanen dituzte obekiena istorio ori presentatzen dutenek* (7). Aitortu behar da historiak ez duela deus ikustekorik hor aurkeztua izan zen “istorio” horrekin (8). Dena den irabazle ateratu zen “Baigurako bi-Artzain” izenpeturik bidalia izan zen olerkia. Horiek ziren bi apez monarkiazale sutu,

(6) Ikus: Jean Haritschelhar, “Le centenaire de la Révolution française dans l’Eskualduna” in *La Révolution française dans l’histoire et la littérature basque du XIX<sup>e</sup> siècle*, Izpegi, 1994, 217-244. or.

(7) Iturria: *Euskal Erria*, 1984, 465-467. or.

(8) Ikus: Manex Goyhenetche, “Deux cas historiographiques (...) Madeleine Larralde”, in *La Révolution française (...)*, op. cit., 163-188. or.

bata zen Laurent Diharassarri, Ortzaizeko erretorea, bere apezpikuarekin ere hasarreturik egon zena Errepublikarengana ez alderatu nahian. Gai berdina beste bi urtez segidan emana izan zen. Gorriak aldiz Hazparnen bildu ziren. Hemen, sariaren irabazle ateratu zen Otxalde, "*Carnot presidenteari*" olerkiarekin (urte horretan zen hila izan Carnot presidentea).

1897an Donibane Lohizunen zuriak muntatu zuten Kongreso haundi bat, "*Le Congrès de la Tradition Basque*", Antoine d'Abbadie-ren zuzendaritzapean (9). Sara izan zen zurien bilgunea, Jean Baptiste Elizanbururen omenez (10).

## II. Zuri gorriak Donibane Lohizunen

III. Errepublika finkatu zelarik, Donibane Lohizuneko Udaletxean gehien-goia bonapartista zen, Vincent Barjonnet zela buru. Opozisio liberalaren buru aldiz zen mediku gazte bat Martin Guilbeau, 1839an sortua, euskal kantu eta olerki ugariren egilea (11). "Pupille de la Nation" zen, hau da Nazionearen babespeko umezurtz. Alkate jarri zen 1877an, baina prefetak izendaturik, orduarte prefetak baitzituen izendatzen alkateak. Halere bozken bidezko gehien-goia lortu zuen 1880an. uztailean 14ean, ospe eta ohore haundiz "Marianne" Errepublikaren sinboloaren irudia ofizialki emana izan zen herriko etxean. Karrera batzuen izenak aldatu zituzten hala nola "Thiers", "Gambetta". Asto lasterrak ere egin ziren omen Donibane Lohizunen. Tarte horretan zuriak, Albert Goyhenetche buru zela, kaseta berri bat sortu zuten, *Le vrai basque*.

Martin Guilbeaurekin batera gorrien sustatzaile nagusia Gustave Lembreure agertu zen, Sarako alkate ohia, Ezpeletako kontseilari jenerala eta Donibane Lohizunen bake-epaile egon zena 1881etik 1885 arte.

1888ko maiatzaren 20an udal hauteskundeak galdu zituzten errepublikanoek eta gehien-goia eskuratu zuen Albert Goyhenetche, bere alde bilduz erregiarrak eta bonapartistak. 1893ko lege biltzarreko hauteskundeetan Lapurdin irabazle ateratu bazen ere Harriague-Morroxo, gorrien buru zena, Donibane Lohizunen zuriak nagusi segitu zuten % 63 boz emanez Laurent Diharassarri apez monarkiazalearen alde.

## Bukaera moduko gogoeta batzu

Zuri-gorrien arteko gataska izan dela, zorionez, euskarazko produkzio aberats baten iturri ez da dudarik. Denek ezagutzen dugu *Eskualduna* asteka-

(9) Ikus: *La Tradition au Pays Basque*, 1899, Elkar, 1982.

(10) Ikus: Xabier Elosegi, "Jean Baptiste Elizanbururen bizitza", *Euskera*, 1992, 1, 102. or.

(11) Iturria: *Euskal Erria*, 1880, 1881, 1882, 1883.

ria eta Jean Hiriart-Urrutik, besteak beste idatzi artikulu joriak. Gutixago eza-gutzen dugu behar bada gorrien euskarazko produkzioa. *Le Réveil basque* agerkarian aurki daitezkenak: Alexandre Dihinx, Julien Vinson (Elissalde izenpetzen zuena), Michel Renaud, Otxalde, 80 urtetan oraindik olerkiak egiten zituena Errepublikaren alde, ahantzi gabe, bistan da, J.B. Elizanburu. Ez da dudarik garai joria, oparoa izan zela euskararentzat, ikusirik orduko herri-arduradunak euskaraz ari zirela, edo euskararen aldeko puntakoak zirela, izan zitezen zuriak ala gorriak, Donibane Lohizunen bertan lekuko ditugu Albert Goyhenetche eta Martin Guilbeau.